



*MITXELEN*Aren lan hautatuak. Idazlanen aukera, oharrak, iruzkinak, Patxi Altunak eginak. Eraskina liburu honi Mitxelenak berak ezarria. Etor. Bilbao, 1972.

*Mitxelenaren lan hautatuak* izeneko bilduma hau, azken orduan egileak liburu honi ipini dion eraskina ezik, aldizkarietan argitaratu

tutako Inaak dira, eta batez ere EGAN aldizkari honetan argitaratuak. Sakabanaturik zituen artikulu, txosten, kritika eta abar, liburu batean bildurik jartzean, Patxi Altunari esker, begien aurrean jartzen digu gure egunhotan euskal literaturan asma ditekean libururik aberatsena. Euskara ikasteko ez-ezik, tradizio eta egungo kultura gai ezaugarrien bilduma aspergaitza da. Gainera, bere hizkuntzaren azterketa jakingarri bat egiten dio Altunak liburuaren lehen parteari.

Ez gara hemen sartuko aburu zehatzik ematera, zenbait aldizkarritan zenbait idazlek emanak dituzte, nik eman nezazkean baino hobeak. Irakurri ditugun aipagarrien arteko aipagarrienetako bat Larresorok «Zeruko Argia»ren 484 zenbakian (1972ko ekainaren 11koa) izango da noski.

Honela zatitzen dira liburuaren parteak: Orri azpiko oharrez hornituriko idazlanak (P. Altunaren oharrez), txostenak, elkar hizketak, gure klasikoak, saioak, hil ondokoak, hitzaurreak, filmak, eta liburuen iritziak.

Liburu honek, egilearen jakituria bere zabalera eta sakonera guzian adiarazten digu, aparteko nabarmentasunez agerrarazi ere. Bere emaitza aberatsak, batez ere egungo pentsaeraren mundutik begiratuaz, euskal literatura mailaz gora darama.

Altunaren hitzaurre labur bat du 404 orrialde dituen liburu mar-dul honek.

J. S. M.

